



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

## 2013KO ABUZTUAREN 9KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2013.08.09.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

### Zinegotziak:

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn  
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.  
Ander Almandotz Indakoetxea jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Koldobike Gorostiza Uriguen and. (kanpoan dago).

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Langileen funtzionarizazio prozesuari buruz.
- 3.-Mendiko lanen esleipena.
- 4.-Alkatearen ebazpenak.
- 5.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2013ko uztailaren 12an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-LANGILEEN FUNTZIONARIZAZIO PROZESUARI BURUZ.**

2013ko ekainaren 10an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (109. aldizkaria) 19/2013 Foru legea, maiatzaren 29koa, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzkoa.

Arantzako Udalak, 2013ko uztailaren 12an egindako bileran, erabaki zuen Arantzako lan-kontratatuak langile finkoak Administrazio Publikoen zerbitzuko langileriaren estatutuan sartzeko prozedura onartzea, aipatutako foru legearen ezarritako baldintzei jarraituz, akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta bi hilabeteko epea ezartzea, sartzeko eskabideak aurkezteko erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita,

Ikusirik akordioa 2013ko uztailaren 29ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dela (144. aldizkarian).

Kontuan hartuz Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeko arautzen duen 19/2013 Foru Legeak ezarritako prozedura tramitatu dela.

Ikusirik eskaera bat aurkeztu dela: Anjel Urtxegi Telletxea jaunarena.

Kontuan izanik eskatzaileak betetzen dituela 19/2013 Foru Legeak eskatzen duen guztia.

Ikusirik idazkariaren txostena (19/2013 Foru legearen 6.1 artikularen arabera) eskatzailearen espedientearen arabera.

Ikusirik 19/2013 Foru legearen 8.2 artikulua non hauxe dio:” Halaber zehaztuko da integrazioa bera zein egunetan gauzatzat jotzen den. Justifikaturiko kausaren bat tarteko denean izan ezik, langile guztientzat berbera izanen da egun hori, eta 2013ko uztailaren 1a baino lehenagokoa”.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Anjel Urtxegi Telletxea jauna Arantzako Udaleko funtzionario eskaera onartzea, 2013ko ekainaren 30tik aurrera, orain arte betetzen duen lanpostuari atxikita jarraituz eta aplikatuko zaizkio Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuen eta hori garatzen duten arauetan funtzionarioentzat ezartzen direnak.

2) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta herriko taulan jartzea.

### **3.-MENDIKO LANEN ESLEIPENA.**

Arantzako Udalak hainbat mendiko lanak egin nahi ditu Basartea S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera (10.257,67 euroko azpiegituren lanak, BEZ barne).

Gonbidapenak bidali dira Sasoi eraikuntzak S.L., Mikel Ubiria S.L., Pako Altzuri S.L., Pello Aginaga Macicior, Mikel Telletxea Juanena eta Patxiku Zelaieta Ariztegi enpresei.

Ikusirik gonbidatu eta aurkeztutako enpresen proposamenak:

-Mikel Telletxea Juanena: 6.359,00 euro, BEZ barne.

-Sasoi eraikuntzak S.L.: 7.181,39 euro, BEZ barne.

-Pello Aginaga Macicior: 8.659,30 euro, BEZ barne.

-Mikel Ubiria S.L.: 8.692,88 euro, BEZ barne.

Mikel Telletxea Juanena enpresaren proposamena %38,00ko baja suposatzen du.

Kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeraren 91. artikularen arabera:

“Lizitazio prozedura batean kontratuko prestazioekin alderatuta baxuegia dirudien eskaintzaren bat aurkezten bada (kontratuaren balio zenbatetsia baino ehuneko hogeita hamar txikiagoa bada), itxura batean behar bezala bete ezin dena, administrazioak, eskaintza hori baztertu aurretik, jakinaren gainean jarriko ditu ukitutako lizitzaile guztiak, bost eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten”.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Mendiko azpiegituren lanak egiteko Mikel Telletxea Juanena enpresaren proposamena bertze enpresei jakinaraztea bost eguneko epea emanez alegazioak egiteko.

### **4.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2013ko 47tik 58. arte).

### **5.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

**Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:**

**6.-ESTHER BURLADA AROCENA ANDREAREN ESKAERA.**

Ikusirik Esther Burlada andreak aurkeztutako idatzia, besta egunetan herriko kalean mahai gehiago jartzeko baimena eskatuz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Esther Burlada andreak aurkeztutako eskaera ez onartzea, hau da, herriko kalean mahai gehiago jartzeko baimena ez ematea.

2) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

Bertzerik gabe, gaueko 20:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Jaime Iturria Mitxelena jn.



